MUNGIA UDALA

# MUNGIARRA

www.mungia.eus

## Gure dirua
Bigarren Aurrekontu Partehartzaileak Mungian, herritarren partaidetza bultzatzen

## Auzoak
Emerandoko ur-hornikuntzaren lanak hasiko dira aurten

## Kultura
Olalde Aretoa, euskal kulturan erreferente



# Adin-tarte desbardinetarako topalekua, Atxurizubiko parkean

Baietz ein!





63

Marzo 2019ko martxoa

# Kaixo, mungiarra:



Ager Izagirre, Mungiako alkatea

Dakizunez, aldizkari honen zergaitia Udalaren ekintzen barri emotea da. Herritarren parte-hartzean sinisten dogunok, badakigu ganorazko informazinoa eukitea zein garrantzitsua dan, parte-hartze hori, behar dan lez gauzatu ahal izateko.

Behar asko egin dogu hainbat arlotan, eta dana ez da sartzen hemen, baina agertzen diranek gure ildo estrategikoak zeintzuk diran adierazoteko balio dabe.

Lehenengo, Mungia guztion artean egiten dogula, eta horretarako parte-hartze prozesuak gero eta gehiago eta hobeak izan behar dirala; kasurako, Aurrekontu Parte-hartzaileena, talde politiko guztien adostasunagaz aurrera doana.

Mungia alkartasunean eta eskuzabaltasunean oinarrituta eraikiten dogu, belaunaldi ezbardinen beharrizanetara adi egonda, adibidez, Mungia Lagunkoia proiektuagaz; edo adin tarte ezbardinak erabilteko moduko guneak eraikita, Atxurizubin egin dogun lez.

Gure auzoak kontutan izanik, gauza txiki eta handien ardurea hartuta, Emerando auzorako ur hornidura proiektuagaz egiten dogun moduan.

Langabezia tasa gitxituteko, gure enpresen eta langabetuen egoera hobetuten lagunduz.

Herriko kaleak hobetuta, Euskal Kultura arloan erreferente izaten jarraituta, eta gure nortasunaren ikurrik handiena, euskerea, jagonda eta bultzatuta, eredu izanda.

Ikusi zeinkenez, aurrera doan herria eraikiten gabilz, danon laguntzagaz. Asko dago egiteko, zelan ez; eta seguru egon gure aldetik bere daukagun guztia ipinten jarraituko dogula, ilusinoz beteta, Mungia merezi dauan lekuan egon daiten.

Besarkada bat

*Ager Izagirre, Mungiako alkatea*

## Kaixo, mungiarra:

Una vez más, a través de estas páginas te presentamos algunas de las acciones realizadas en los últimos meses.

Construimos Mungia entre todas y todos y, por eso, son tan importantes los presupuestos participativos. Igualmente, nuestro pueblo se basa en la concordia y solidaridad, teniendo en mente a diversas generaciones con proyectos como Mungia Lagunkoia y la zona intergeneracional habilitada en Atxurizubi.

Seguimos cuidando de nuestros barrios, ayudando a la gente desempleada e impulsando nuestro símbolo de personalidad, el euskera.

Aún hay mucho por hacer pero estamos erigiendo un pueblo que va hacia adelante. Seguiremos poniendo todo de nuestra parte para que así siga.

Un abrazo

*Ager Izagirre, alcalde de Mungia*

# Emerandorako ur-hornidura




Plano honetan Emerandoko ur-hornidura nondik nora doan ulertu geinke.

Siguiendo con nuestro empeño de mejorar la calidad de vida de nuestras vecinas y vecinos, el barrio de Emerando verá una importante mejoría con la ejecución de una nueva red de abastecimiento de agua. Se prevé que los trabajos de infraestructura comiencen a finales de este año.

## Proiektuaren azalpena

Helburu horri ekiten jarraitu dogu auzokideakaz alkarlanean, euren proposamenak entzuten eta bertako bizi-kalidadea hobetzeko ahalegina egiten. Hori dala eta, ur sarea Emerandoraino bertaraino eroatea da hurrengo burutuko dogun proiektua.

### AZPIEGITURA EGITEKO LANAK AURTEN HASIKO DIRA.

**Emerandoko goiko aldeko etxeek ur-hornidura ez dabe Udalaren ur saretik hartzen, eurek daukiezan ur biltegietatik baino.** Ur-hornidura zelan emon ikertu eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoagaz batzartu ostean, gune horretaraino ura eroateko proiektua prestatu dau Ur Partzuergoak.

**Ura bertaraino eroateko, ur biltoki bat eraikiko da Emerandoko goialdean dagoan Elorriaga Bidean.** Haraino, Markaidako ur biltokitik eroango da ura, basotik doan hodi bat erabiliz. Elorriaga Bidean egingo dan ur-biltoki horretatik, orain arte sare barik egon diran eta sareko ura jasoteko interesa daukien etxeetara bananduko da ura.

Partzuergoa proiektua amaitzeko zorian dago; **Udalean hasi gara lurrak eskuratzen eta beste erakundeei lanak egin ahal izateko baimenak eskatzen.** Behin lur horreek eskuratu eta baimenak lortuta, joan dan aurrekontuetan lortutako diru gerakinagaz, diru partida bat gordeko da lanak egin ahal izateko.

Guztira, lur eskuraketa, lizitazino prozesua eta lanen esleipena kontutan hartuta, **2019aren azkenerako lanak hasteko prest egotea dago aurreikusita.**

Lanak, guztira, milioi bat euro inguru kostatuko dira. Horretatik, Ur Partzuergoak 200.000€ inguru ipiniko ditu, eta, Udalak, 800.000€. Behin diru partida hori gordeta, kontratazino prozesua hasiko da.

| Autobus-geltokiko abisu sistema Elordiganen | Sistema de aviso en la estación de autobús de Elordigane |
|---|---|
| Bizkaiko Foru Aldundiak, Udalak egindako eskaerei erantzuteko asmoz, Elordigane auzoko autobus-geltokian jentea itxaroten dagoala jakinarazoko dauen abisu-sistema ezarriko dau. | Próximamente la Diputación Foral de Bizkaia, atendiendo a las peticiones realizadas por el Ayuntamiento, instalará un sistema de aviso que detecte si hay gente esperando en la estación de autobús de Elordigane. |

# Belaunaldiarteko gunea Atxurizubi parkean

## Zona intergeneracional

Desde el Ayuntamiento apostamos por generar zonas para socializar, hacer deporte y cuidar la salud. Por ello, hemos acondicionado el **parque de Atxurizubi** creando una zona intergeneracional **al aire libre** que sirve como punto de encuentro entre personas de diferentes edades y donde las familias pueden **disfrutar de forma conjunta y haciendo ejercicio.**

Las y los jóvenes cuentan con equipamiento para practicar ***Street Workout*** mientras que las personas mayores tienen aparatos diseñados para **mantener y mejorar las articulaciones** del cuerpo. Asimismo, se han reformado **elementos de la zona de juegos** infantil.



Street Workout diziplina honek kalean entrenamendu errutina bat egiteko modua eskaintzen dau.

## Osasuna eta kirola kalean

Udalak osasunaren eta kirolaren aldeko apustua egiten jarraitzen dau. Hori dala eta, belaundaldiarteko gunea prestatu eta osotu dau Atxurizubi parkean. Instalazino horri esker, edade ezbardinetako **herritarrei alkarren arteko hartu-emonak sortzeko topagune berde bat** eskaintzen jake, baita familiek alkarregaz egoteko eta kirola egiteko aukera izan daien bere.

### HELBURUA: KIROLAGAZ DIBERTITZEA ETA GOZATZEA NATURA-INGURUNE BATEN .

Gune honetan kiroletako ekipamendu gehiago jarri da eta orain 'freestyle' barrak, 'Monkey bar', barra paralelo hirukotxak, zaldi bikotxa, banku laua eta inklinaturiko beste bat dagoz.

Gazteek *Street Workout* deritxon kirola egiteko ekipatutako zona bat daukie bertan. Espazio zabal horretan doan landu ahal dabe haien **indarra, muskulatura, malgutasuna eta fondoa.**

Bertan dominadak, flexinoak eta abdominalak egin ahal dira. Horren ganera, oreka eta fondoa landu daitekez, baita hainbat gihar indartu bere, kasurako, bizkarra, sorbaldak, bularra, bizepsak trizepsak; ganera, eskuturreko eta atzamarretako luzapenak egiteko aukerea bere badago.

### UMEENTZAKO JOLASTEKO ZONAN DAUDEN ELEMENTU BATZUK ERE BERRITU DIRA.

Beste alde batetik, edadekoek –gure herrian hain sektore garrantzitsua osatzen dauen taldea izanda– kanpoan egindako kirolaz gozatu ahal izango dabe kirolgune honi esker. Atxurizubiko parkean **gorputzeko artikulazino gehien-gehienak jagoteko eta hobetzeko** diseinatutako aparatu eraginkorrak daukiez eskura. Aparatu horreek erabilita, edadekoen ongizate fisiko, psikiko eta soziala hobetzea bultzatuko da. Aldi berean, **atseden hartzeko edo trankil-trankil berbetan egoteko pentsatutako gunea** bere bada.



Osasuna zaintzeaz ganera, alkartzeko eta hartu-emonak egiteko erea emoten deutse gune honek nagusiei.

Gune honetan kiroletako ekipamendu gehiago jarri da eta orain 'freestyle' barrak, 'Monkey bar', barra paralelo hirukotxak, zaldi bikotxa, banku laua eta inklinaturiko beste bat dagoz.

# Munduko Pala Txapelketak frontoia gori-gori jarriko dau



Martiaren 1etik aurrera, partiduak barikuro jokatuko dira, arratsaldeko 19:00etan.

Martiaren 1ean jokatu zan Munduko XII. Binakako Pala Txapelketaren lehenengo jardunaldia. Aurreko urteetan itzelezko arrakasta izan eban lehiaketa honek eta aurtengoan bere bide beretik doala emoten dau, partidu bakotxean Udal Frontoia kirolari eta pelotazale amorratuz betetea espero da-eta.

**Partiduak barikuro izango dira arratsaldeko 19:00etan, Udal frontoian**. Txapelketaren Final Nagusia apirilaren 13an jokatuko da, zapatuan, arratsaldeko 17:00etan. Jokatuko daben palistak honeek dira: Pablo Fusto, Dan Necol, Esteban Gaubeka, Iker Gordon, Xabier Ibargarai, Ibai Perez, Iñaki Urrutia eta Ibon Garate.

El XII Campeonato Mundial de Pala por Parejas arrancó el pasado 1 de marzo, llenando el Frontón Municipal de afición. Así, cada viernes a las 19.00h se podrá disfrutar de un partido hasta llegar a la Final del Campeonato que se disputará el sábado 13 de abril a las 17.00h.

# Kirolaren bidez herria sortuz

### XX. Herri Krosa

Eguraldi txarrak ez ditu mungiarrak kikiltzen eta horren adibide dogu aurtengo San Antontxuetako krosa. Izan bere, 2019ko San Antontxu jaietan ospatu genduan Herri Krosak itzelezko arrera izan eban. Bere hogeigarren edizinoan **1.900 parte-hartzaile** –ume eta heldu– batu ebazan kirol ekitaldi horrek.

Nagusien kategorian bi sailkapen egon ziran, 5 eta 10 kilometrokoak. 15 urtetik beherako gaztetxuentzat Herri Kros Txikia egin zan.

**Mungia Atletismo Taldeak antolakuntza-lan ezin hobea egin eban** barriro bere eta herriko bizilagunen inplikazinoa eta parte-hartzea lortu eban.

Izen-emateei esker ateratako **diruaren parte bat gaixotasun arraroen ikerketa-proiektuetara bideratu** zan, Asociación Desafía Dravet eta STOP-FA alkarteek egiten daben lana erakusteko eta gaixotasun arraro horreen ganeko kontzientzia biztuteko.



Mungia Atletismo Taldeko kideak Ager Izagirre alkateagaz eta Markel Dominguez Kirol zinegotziagaz batera.

El pasado enero celebramos la vigésima edición del Herri Krosa en la que participaron 1.900 personas adultas y niñas y niños. Organizada por Mungia Atletismo Taldea y con la colaboración del Ayuntamiento, parte de lo recaudado por la venta de los dorsales fue destinado a proyectos de investigación sobre enfermedades raras que impulsan Asociación Desafía Dravet y STOP-FA.

# GEU EREDU

## Campaña de civismo y convivencia

Próximamente se desarrollará una nueva campaña de civismo y fomento de la convivencia orientada a la **reflexión de la ciudadanía** sobre diversas cuestiones. La campaña, bajo el lema *Geu eredu*, tiene como fin que tomemos conciencia sobre que todas y todos tenemos una **responsabilidad a la hora de mostrar actitudes y comportamientos** que faciliten la convivencia y el respeto mútuo.

A través de esta campaña se trabajan valores relacionados con la solidaridad, el rechazo hacia cualquier tipo de violencia, el respeto a la diversidad, la igualdad de género, la no competitividad en el deporte o el fomento de las relaciones intergeneracionales.

**Para llevar a cabo esta campaña se han creado distintos materiales de divulgación:** una breve guía, carteles, paneles que se han colocado en distintos puntos del municipio y tótems que se van a instalar en la plaza.

### Herritartasun kanpaina

Alkarbizitzaren eta gizabidearen ganean pentsatu eragingo deuskun kanpaina bat gauzatuko da laster. "Geu eredu" lelopean egingo dan ekimen horren helburua zera da: alkarbizitza eta alkarrenganeko errespetua jagoteko beharrezkoak diran jarrerak bultzatzea guztion ardurea dala erakustea.

Horretarako, hainbat balio landuko dira, besteak beste, alkartasuna, indarkeria mota guztien kontrako jarrerea, aniztasuna errespetatzea, genero-bardintasuna, lehia bako kirola eta belaunaldien arteko hartu-emonak sustatzea.

Ekimen hau gauzatzeko, gidaliburu bat, kartelak, herrian zehar kokatutako panelak eta plazan jarriko diran totemak sortu dira.

# Cursos sobre nuevas tecnologías para mayores

Durante el mes de marzo, desde el Ayuntamiento se están ofreciendo cursos gratuitos destinados a personas mayores de 60 años para ayudarles en el uso de las nuevas tecnologías. Están dirigidos especialmente a personas que no tienen conocimientos informáticos ni hábito en el uso de teléfonos móviles, tablets u ordenadores.



Se han organizado dos módulos de cuatro sesiones de una hora y media cada uno con una participación de 30 personas.

### Teknologia barrien ganeko ikastaroak edadekoentzat

Teknologia barrien ganeko ikastaroak edadekoentzat

Udalak teknologia barrien ganeko doako ikastaroak eskaintzen deutsez 60 urtetik gorako herritarrei martian. Ikastaro horreek jakintza informatikorik ez daukienentzat eta mugikor, tablet edo ordenagailuakaz ibilten ez diranentzat dira.

Modulu bi egin dira, bakotxa ordu eta erdiko lau saiokoa, eta 30 lagunek hartu ahal izango dabe parte.

# Seguir visibilizando la diversidad

Mungiak Bilboko Gaylesbitrans Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Zinegoak Jaialdian hartuko dau parte eta, martiaren 15ean, 6 film labur proiektatuko ditu Torrebillela Kultur Etxean.

Mungia participará por cuarta vez en la Extensión de Zinegoak, el Festival Internacional de Cine y Artes Escénicas Gaylesbitrans de Bilbao. Este proyecto utiliza el cine como herramienta para visibilizar y naturalizar la diversidad que existe en la sociedad y en nuestro propio pueblo. Así, el día 15 de marzo se proyectarán en Torrebillela 6 cortometrajes con temáticas relacionadas con la diversidad sexual, la identidad, el género o la discriminación.

| Proyecciones: | Origen: |
|---|---|
| ANDERS | Países Bajos |
| VIDI JA TI NEA | República de Macedonia |
| DEVI | EUA |
| MALIK | Francia |
| OASIS | México |
| NOMEOLVIDES | España |




# DROGAK: ADI EGON

En colaboración con el Servicio de Prevención de Adicciones y la Policía Local, desde el Ayuntamiento se va a llevar a cabo la **campaña de prevención** *DROGAK: ADI EGON*, para concienciar a la ciudadanía sobre los riesgos y daños que genera el consumo de drogas. Se hará hincapié en las consecuencias legales que pueden ocasionar la tenencia, venta o cultivo de sustancias ilícitas, intentando desmontar muchas falsas creencias que existen al respecto.

Además, se incidirá en cómo detectar posibles situaciones de riesgo en el ámbito familiar, así como dónde se puede acudir en caso de necesitar ayuda.

## DROGAK: ADI EGON

Prebentzino kanpainaren helburua herritarrak droga-kontsumoak sortzen dituan arrisku eta kalteen kontzientzia hartzea da. Drogak edukiteak, saltzeak eta hazteak eragin leikiezan lege-ondorioak azpimarratuko dira.

# Jornada de Salud sobre el cannabis

El Servicio de Prevención de Adicciones de la Mancomunidad Mungialde de Servicios Sociales organizará la **X Jornada de Salud el 28 de mayo** en Torrebillela Kultur Etxea. Este será un encuentro entre diferentes profesionales del ámbito social, sanitario, juvenil, educativo y familia donde se hablará sobre el cannabis, su situación actual, los aspectos legales y las intervenciones desde el punto de vista socioeducativo y de salud mental.

Datorren maiatzaren 28an cannabisaren kontsumoaren arrisku eta ondorioen gaia ardatz moduan hartzen dauen Osasunari buruzko X. jardunaldia antolatuko da Torrebillela Kultur Etxean.

# Gazteak eta lonjak

Lonjak aisia-espazio bezala erabilten dabezan gazteenganako sozio-heziketa eta hurbiltze lana egiteko zerbitzua kontratatu dogu Udalean. Hezitzaile batek lanaldi-erdian eskainitako zerbitzu hori martian abiatu da eta, lehen fase baten, Mungian arlo horretan dagoan errealidadearen azterlana egingo dau.

Aurrerago, lonjak erabilten dabezan gazte horrengana hurbildu gura dogu, emakume eta gizonen arteko bardintasuna, euskerearen erabilera sustatzeko eta menpekotasunaren prebentzinorako akzinoak inplementatu eta diseinatzen joateko. Horren ganera, euren beharrizan eta proposamenak jasoko dira.



## Población juvenil y lonjas

Desde el Ayuntamiento hemos contratado un servicio dirigido a realizar **una labor de acercamiento y trabajo socio-educativo con la juventud** que utiliza las lonjas como espacios de ocio. Este servicio, ofrecido por un educador a media jornada, se ha puesto en marcha en marzo y realizará, en una primera fase, un análisis de la realidad existente en Mungia sobre este fenómeno.

Más adelante, pretendemos **acercarnos a la población juvenil** que utiliza las lonjas para ir diseñando e implementado acciones de prevención de adicciones, la promoción de la igualdad entre mujeres y hombres o el fomento del uso del euskera, así como recoger sus necesidades y propuestas.

# Erlajatzeko eta bizkarra zaintzeko tailerrak

Jagoten

Aurten Jagoten programak ekintza barri bi sartu ditu egitarauan, mendekotasuna prebenitzeko eta senideen zaintzaileen osasun fisiko eta mentala jagoteko.

**EKINTZA BIAK MUNGIAKO UDAL KIROLDEGIAN EGINGO DIRA.**

Alde batetik, **bizkarra jagoteko tailerra,** 60 urtetik gorako pertsonei eta hareen jagoleei zuzenduta. Jarrera-higienea deritxona landuko da, ariketa praktikoak eginda eta bizkarra jagoteko eta bizkortasuna handitzeko egin ahal diran ariketak eta ekintzak erakutsita. Sei saio izango dira, astelehenetan, martiaren 11n hasita, 18:15etik 19:15era bitartean.

Bestetik, **erlajatzen eta norberaren emozinoak jagoten ikasteko tailerra,** senideen jagoleei zuzenduta. Zelan erlajatu ahal gara? Egunero ariketa batzuk eginda, pertsona bat jagoteak eragiten dituan ondorio emozionalak ondo bideratzeko. Sei saio izango dira; maiatzaren 9an hasita, eguenetan, 18:30-20:00 bitartean.

El programa Jagoten ha incorporado a su proyecto los talleres de relajación y cuidado de la espalda para personas mayores y aquellas que tienen personas a su cargo.

# Día Internacional de las Mujeres

## Acciones para todas las edades

Este año, además del ya tradicional reconocimiento a las mujeres baserritarras, los talleres de autodefensa, la comida de mujeres y el teatro de Diz-Diz, completamos los actos del 8 de marzo, Día Internacional de las Mujeres, con la II Carrera por la Igualdad, en la que cualquier persona podrá correr o caminar, con paso firme, por la Igualdad y contra la Violencia hacia las Mujeres.

**SE OFRECERÁN TALLERES DIRIGIDOS A LA CIUDADANÍA SOBRE LENGUAJE NO SEXISTA, NO DISCRIMINATORIO E INCLUSIVO.**

Emakumeen Nazioarteko Eguna dala-eta, ekintza desbardinak izango doguz: omenaldia emakume baserritarrei, autodefentsa tailerrak, emakumeen bazkaria eta Diz-Diz taldeak eskainiko dauen antzezlana. Horren ganera, Bardintasunaren Aldeko Bigarren Lasterketa bere antolatuko da, oinez zein karraderan egiteko modukoa dana.

El Gaztegune acogerá durante 2 viernes consecutivos talleres para trabajar la Igualdad y la actitud Beldur Barik entre chicas y chicos jóvenes y, en los centros escolares, seguiremos con nuestro compromiso por ofrecer a la juventud pautas para que sus relaciones de pareja sean basadas en el buen trato y la no violencia.

**PUBLICACIÓN DEL BANDO MUNICIPAL**

"El Ayuntamiento de Mungia, con motivo de la huelga convocada por el Movimiento Feminista, asume la responsabilidad de facilitar el ejercicio del derecho a la huelga a las trabajadoras y electas municipales y, por lo tanto, no programa ningún acto el 8 de marzo, trasladando los mismos a otras fechas. Asimismo, hace un llamamiento a la ciudadanía para que participe activamente en las movilizaciones convocadas por el Movimiento Feminista con motivo del Día Internacional de las Mujeres".




# Acompañamiento para mujeres que sufren malos tratos

## Tartekari Sarea

**PARA CONTACTAR, LLAMAR AL TELÉFONO: 688.826.204**

En el marco del programa de **Red de Agentes de Apoyo Social** *Tartekari Sarea*, la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Mungia firmaremos un protocolo de coordinación. La red está compuesta por **mujeres voluntarias de Diz-Diz, formadas en la materia** por la Diputación Foral de Bizkaia para ofrecer **apoyo, información, orientación y acompañamiento inicial a mujeres que sufren malos tratos** por parte de su pareja o ex pareja, con el objetivo de que puedan llegar a los recursos sociales especializados locales o forales.

Tratu txarrak sufritzen dabezan emakumeen bide-lagun izateko koordinazinorako protokoloa sinatuko dogu. Laguntza hori helburu zehatz horretarako prestakuntza hartu daben Diz-Diz alkarteko boluntarioek eskainiko dabe.

# Presupuestos Municipales 2019



Los presupuestos para el año 2019 han sido aprobados en el Pleno Municipal. En este ejercicio dispondremos de **20.333.183€.**

**El presupuesto incluye estos proyectos:**

- **Creación de empleo**: Impulsamos la creación de empleo, el empleo público, el Plan de Empleo Comarcal, las empresas de la zona y a las y los emprendedores. Mungialdeko Behargintza contará con una partida **de 925.309,30€.**
- **Comercio local:** Se han reservado **18.000€** para el programa *Mungibono.*
- **Juventud:** En colaboración con Mungialdeko Behargintza, el Consistorio contará con **347.000€** destinados a Formación Profesional Básica y el proyecto *Udal Gaztedi*, posibilitando su acceso al mercado laboral.
- **Alquiler de viviendas:** Inicialmente se invertirán, siendo ampliables en función de las necesidades, **25.000€** para el programa de ayudas para el alquiler dirigidas a residentes de Mungia de entre 18 y 35 años.
- **Bienestar social:** La Mancomunidad Mungialde de Servicios Sociales recibirá una aportación de **725.021,80 €.**
- **Barrios:** Se invertirán otros **125.000€** en los barrios, llegando así a los **500.000€** esta legislatura, sin contar con otras actuaciones puntuales, en cuanto a saneamiento y abastecimiento de agua, por ejemplo.
- **Servicios públicos e infraestructuras:** 100.000€ irán dirigidos a la redacción de proyectos como la cubierta de la pista exterior de Legarda y la remodelación del campo Larreta Fútbol 7. Igualmente reformará el tejado de Uriguen Haurreskola con **102.000€.**
- **Accesibilidad:** Se destinan **300.000€** para acometer proyectos de accesibilidad, así como ampliación y renovación de calles y aceras.
- **Transparencia y cercanía:** Se invertirán **80.000€** con el objetivo de seguir acercando y facilitando los servicios y la información municipal a la ciudadanía. Asimismo, se destinarán 35.000€ para una auditoría externa.
- **Asociaciones locales:** todas ellas forman parte de **nuestra identidad como pueblo.** Se mantienen o incrementan los fondos destinados al efecto; este año especial mención para el aumento de la partida destinada a subvenciones para entidades deportivas, que alcanza un 9,5%.

**bilgailuen Ganeko Zerga ordaintzeko borondatezko epea:** apirilaren 3tik maiatzaren 3ra, biak barne.

**Periodo voluntario de pago del impuesto sobre vehículos:** Del 3 de abril al 3 de mayo, ambos inclusive.

2019rako Udal Aurrekontuak

**20.333.183€-ko aurrekontuaren bidez,** Udalean kalidadeko zerbitzu publikoak bermatu gura doguz. Udal aurrekontuok linea estrategiko desbardinetan bananduko dira, besteak beste:

Enplegua mantentzea eta sortzea **(925.309,30€),** bertoko merkataritza indartzea **(18.000€),** gazteentzako formazinoa lan munduan sartzeko **(347.000€),** gazteentzako alokairu-laguntzak **(25.000€),** gizarte-ongizatea eta gizarte-zerbitzuei eustea **(725.021,80 €),** auzoak **(125.000€),** zerbitzu publiko eta azpiegiturak **(100.000€),** irisgarritasuna eta kaleen mantentze eta hobetzea **(300.000€),** gardentasuna **(115.000€)** eta gure nortasuna.

# Bigarren aurrekontu parte-hartzaileak




195 proposamen aurkeztu doguz lehen fasean

Mungiako Udala osatzen dogun alderdi politiko guztiok **herritarron partaidetza bultzatzen jarraituten dogu** aurrekontu parte-hartzaileen bidez bigarrenez. Prozesu hau herritarrek **Mungiaren eguneroko kudeaketan parte hartzeko modu** bat da.

Proiektu hau Udala osatzen dogun alderdi politiko guztion adostasunagaz egin da.

Bizilagun guztiak tartean egotea gura dogu, gure **udalerriak behar dituan inbertsinoen zati bat zehazten**. Parte hartzeko, Mungian erroldatuta egotea eta 16 urte baino gehiago izatea da beharrezkoa.

**MUNGIA DANON ARTEAN EGITEN DOGU.**

**Aurrekontu Parte-hartzaileen** lehenengo fasea urtarriletik zezeilera bitartean burutu zan eta bertan herritarrok zuen proposamenak aurkezteko aukerea izan zenduen. **Guztira 195 proposamen** aurkeztu dozuez.

Une honetan, aurkeztu diran **proposamenen bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa aztertzen gabilz**, eurotatik zeintzuk bihurtuko diran proiektu zehaztu ahal izateko eta bigarren fasera zeintzuk pasatuko diran erabagiteko. Gero proiektu aukeratuen zerrenda plazaratuko dogu eta, **bigarren fasean, Mungiako herritarrok proiektuok lehenetsi egingo doguz.**

**UDALETIK ESKERRAK EMON GURA DEUTSUEGUZ LEHENENGO FASEAN PARTE HARTU DOZUEN PERTSONA ETA ALKARTE GUZTIOI.**

Baietz ein!

Proiektu hau Udala osatzen dogun alderdi politiko guztion adostasunagaz egin da.

Por segundo año queremos que os impliquéis definiendo parte de las inversiones del municipio en los presupuestos participativos.

Estamos analizando las 195 propuestas que habéis presentado para pasarlos a una segunda fase, en la que vosotras y vosotros decidiréis cuál priorizar. Desde el Ayuntamiento queremos dar las gracias a todas las personas y asociaciones que habéis participado en la primera fase.

# Umeentzako espazio barriak sortzen

La nueva zona de juegos infantil cubierta de Goieta Plaza ha sido remodelada íntegramente haciéndola más inclusiva y espaciosa.



## Goietako jolasleku estalia

Auzotarren beharrizanak beteteko asmoz, Goietako jolasleku estaliaren proiektuari ekin geuntsan, familiek eta umeek euri egunetan joko-gune bat euki daien.

Lehendik egoan gunea goitik behera egokitu da, estalki eta zoladura barriak jarrita. Bere diseinuak joko inklusiborako eremu zabala eskaintzen dau, aniztasun funtzionala daukien umeentzat segurtasuna bermatzen dauen sarbideagaz; ganera, adin eta baldintza fisiko desbardinak daukiezan umeei dago zuzendurik.

220 m2-ko azalera daukan instalazino hau prozesu parte-hartzaile baten bidez aukeratu zan eta 300.000€-ko aurrekontua izan dau.



# Ibaibide kalean egindako barritze-lanak

**Ibaibide kalean egindako barritze-lanak**

Irisgarritasuna eta mugikortasuna bermatzeko egin dira Ibaibide kaleko barritze-lanak. Lau hilabete iraun daben behar horreen helburu nagusiena inguruko auzokideen beharrizanei erantzutea izan da, hau da, oinezkoen segurtasuna eta joan-etorriak hobetzea. Horretarako, 352.000€-ko inbertsioa egin da.

Kalea osorik barriztatu da **aparkaleku kopurua gitxitu barik eta espaloiak aldatu eta zabalagoak eginda.**

La calzada de la calle Ibaibide ha sido reparada **sin disminuir la cantidad de plazas de estacionamiento** y las aceras han sido modificadas y ampliadas.



Bidea estutu egin da auto ilararik ez sortzeko.

# Mungiberritik ibiltea erosoagoa izango da laster

**Mungiberri será más cómodo para las y los viandantes y contará con más aparcamiento**

En breve se adaptará, para mejorar su accesibilidad, la zona Mungiberri situada entre las calles Landetxo e Intxausti Eresgille. Esta obra requerirá una importante intervención en aceras y supresión o modificación de diversos elementos de mobiliario urbano que entorpecen el movimiento a viandantes en esta zona.

Asimismo, y con el fin de facilitar la vida diaria de quienes viven allí, se mejorarán las condiciones de accesibilidad de los pasos peatonales y se favorecerán las conexiones y encuentros de las diversas calles que conforman este entorno y se crearán más plazas de aparcamiento. El presupuesto destinado a esta obra es de 200.000€.



Oinezkoentzako pasaguneetako eta espaloietako irisgarritasun baldintzak hobetu egingo dira.

Laster barru, Landetxo eta Intxausti Eresgile kaleen artean dagoan Mungiberri izeneko inguruan egokitze-obrak egingo dira, aurrerantzean irisgarritasun baldintza egokiak izan daizan, eta aparkaleku gehiago sortuz. Oinezkoen joan-etorriak oztopatzen dabezan hiri-altzariak aldatu edo kentzeaz ganera, espaloietan hainbat aldaketa-lan egingo dira. Horretara,kaleotan batetik bestera ibiltea erraztu egingo da. 200.000€ko aurrekontua daukagu lan horreek egiteko.

**Herriaren alde hori osotzen daben kaleen arteko loturen alde egingo da.**

# Etxeko energia kontsumoan aurreratu

### Sentsibilizazino kanpaina

Udalean energia kontsumoari buruzko kanpaina bat jarri dogu martxan **herritarrei energiaren prezioaren etengabeko gorantzako norabideari aurre egiteko modu desbardinak erakusteko.** Horretarako, ekintza desbardinak antolatu dira energia gaietan aditua dan pertsona baten eskutik.

Zezeilean Mugire Txokoan egindako

> Zalantzei energia-kudeatzaile aditu batek erantzun deutse.

**hitzaldietara** etorri zinienok **energia barriztagarriei, laguntzei eta fakturak ulertzeko erari buruzko informazinoa** eskuratu zenduen. Horren ganera, arlo zehatz desbardinei zuzendutako hitzaldiak bere eskainiko dira: eskolak, jubiladuak, komertzioak eta enpresak.

Zalantzei energia-kudeatzaile aditu batek erantzun deutse.

Informazino puntuak bere jarri dira zezeileko egun desbardinetan Udaleko Erakusketa Aretoan.



Bertara agertu zarienok informazino pertsonalizatua jaso dozue, bakotxak izan ahal dituan arazoak tratatzeko edo dudak zehazteko.

### MARTIAN MARTXAN JARRIKO DA ENERGIA AURREZTEKO KITEN MAILEGUA

Herritarrek kit batzuk hartu ahal izango dozuez mailegu eran, bi astean zehar zuen **etxeetan energia zelan aurreratu ahal dozuen jakiteko** helburuagaz.

**Edukia:**
- Hozkailurako termometro bat
- Ihesaldi termikoaren detektagailua
- Tenperatura- eta hezetasun-neurtzailea
- Plug in energia neurtzailea
- Erradiadore giltza
- Dutxarako kronometroa
- Material bakotxaren argibideak eta hartu ahal ditugun neurriak

| Energia aurrezteko 4 KITen maileguan parte hartzeko | Procedimiento del préstamo de los 4 kits de ahorro energético |
|---|---|
| **Egin behar dana:**<br>• Interesa daukana HAZera joan behar dau eta han eskaera orri bat bete.<br>• HAZeko langileak horren barri emongo deutso Agenda 21eko arduradunari eta honek interesdunari KITa emon eta zelan erabili azalduko deutso. | **Pasos a seguir:**<br>• La persona interesada tendrá que ir al SAC y rellenar una solicitud.<br>• La persona que atiende en el SAC se pondrá en contacto con la responsable de Agenda 21 y ella se encargará de dar el maletín con el kit y explicar su funcionamiento. |
| **Nori zuzenduta:** Mungian erroldatuta eta 18 urtetik gorako herritarrei zuzenduta dago. | **Dirigido a:** Cualquier persona mayor de edad interesada y empadronada en Mungia. |
| **Noiz:** Martian eta apirilean. | **Cuándo:** Marzo y abril. |
| **Iraupena:** Herritar bakotxak aste 2an euki ahal izango dau kITa etxean. | **Duración:** Cada ciudadana o ciudadano podrá tener el kit en casa durante 2 semanas. |

# La importancia de reciclar correctamente

Edukiontzi bakotxean zer bota behar dogun jakitea oso garrantzitsua da hondarrak era egokian banandu ahal izateko eta gero egin behar dan birziklapena errazteko. Ez ahaztu kolore debardinetako edukiontziak dagozala eta bakotxera zer bota behar dan.

## Recordatorio

Todas y todos sabemos que es muy importante conocer **qué debe tirarse en cada contenedor para poder separar los residuos de forma correcta y facilitar su posterior reciclaje**, optimizando también el coste que supone la tasa de basuras. Por ello aquí os dejamos un breve recordatorio, en caso de tener alguna duda.

**PARA PODER CLASIFICAR ADECUADAMENTE LOS RESIDUOS, CONTAMOS CON DISTINTOS CONTENEDORES:**

- **Contenedor marrón:** materia orgánica (verduras, fruta, semillas, frutos secos y sus cáscaras, cereales, restos vegetales).
- **Contenedor amarillo:** envases (envases de plástico, metálicos, bricks, juguetes, pequeños electrodomésticos, biberones, guantes de goma, peines, cepillos de dientes, cazuelas, sartenes).
- **Contenedor azul:** papel y cartón (periódicos, revistas, bolsas de papel, folios usados, libretas, cajas y envases de cartón de cereales, de galletas, de comidas precocinadas, hueveras de cartón, tubos de cartón de papel higiénico).
- **Contenedor verde:** vidrio (botellas de vidrio, frascos de vidrio, tarros de alimentos).
- **Contenedor naranja:** aceite de cocina usado.
- **Contenedor gris:** fracción resto (aquellos residuos que no pueden ser arrojados a los contenedores de materia orgánica, envases, papel y cartón, vidrio y aceite).
- **Contenedor blanco:** textil.




# Nuevas luminarias en Belako, Gamiz Bidea, Erribide y Trobika Kalea

## Mejora de la eficiencia energética

En el Ayuntamiento seguimos apostando por la mejora de la eficiencia energética de las instalaciones de alumbrado público exterior dentro del Plan de Acción para la Energía Sostenible (PAES). Por ello, se ejecutarán una serie de cambios en la luminaria con el objetivo de dar resultados óptimos. El trabajo consiste en la sustitución de las luminarias existentes en el polígono industrial de Belako, Gamiz Bidea y en las calles Erribide y Trobika por luminarias de tecnología LED.



Las luminarias a contratar son 145 luminarias viales de 68 MW de LED y 4 luminarias ambientales de 38 MW de LED.

Udaleko Energia Jasangarria lortzeko Ekintza Planari jarraituta, Mungiako eraginkortasun energetikoa hobetzen jarraitzen dogu. Kasu honetan Belako, Gamiz Bidea eta Erribide eta Trobika kaleetan dagozan argiak LED teknologiako argiakaz aldatuko dira.

# Herri Antzerkia

Los próximos 6 y 7 de abril Olalde Aretoa recibirá el teatro popular *Gure Etxea* donde participarán diferentes asociaciones, compañías de teatro y personas de Mungia.

**Nondik gatozen eta zer garan**

Barriro bere antzerki arloko zereginetan buru-belarri sartuta gabilz mungiarrok. Herriak berak landu eta gauzatuko dauen proiektu bat bultzatu gura izan dogu Udaletik, eta erronkarik politenetarikoa **Gure Etxea** izeneko herri antzerkia izan leitekeala pentsatu dogu.

Antzerki konpainia bi ibiliko dira antolaketa-lanetan laguntzen, biak eskarmentu handiko konpainiak Euskal Herriko antzerki-munduan: **Markeliñe Antzerki Taldea eta Glu glu Producciones.**

Konpainia horreetan izen handi eta ibilbide luzeko erreferenteak ditugu: Markeliñe antzerki taldetik, Jon Kepa Zumalde gidoilaria; Glu glu Producciones konpainiatik, barriz, Mari Kruz Melgosa eta Toño Pinto ekoizleak eta Ugaitz Alegria zuzendari artistikoa.

**APIRILAREN 6AN ETA 7AN ANTZEZTUKO DA OLALDE ARETOAN.**

Horren ganera, azpimarratzekoa da proiektu hau gauzatu ahal izateko herriko hainbat eta hainbat **alkarte eta talde egiten dabilzan beharra**: dantzariak, abeslariak, musikariak, etab. Baina ezin da herri antzerkirik egin herririk ez badago, eta oraingo honetan ehun pertsona baino gehiago batu dira –ume eta heldu– erronka honetan parte hartzeko.

Gure etxea antzezlanak euskal nortasuna, izakerea, kulturea, berbetea, ohiturak eta bizimodua azalduko deuskuz. Horren ganera, **historian zehar izan dogun eboluzinoa bere erakutsiko dau,** Landetxo Goikoa baserria eredutzat hartuta.

# Euskaraldiak gogoa piztu dau herrian



**2.473 parte-hartzaile**

Euskaraldiaren eragina neurtzea ez da erraza, datu kuantitabiboak eta kualitatiboak hartu behar dira-eta kontuan. Oraingoz ez daukaguz eskura parte-hartzaileei egin jakezan inkesten ondorioak (dagozanean, jendaurrean aurkeztuko dira). Izen-emotearen ganekoak, ostera, bai, hementxe daukazuez:

**• IZEN-EMOTEAK:**

2. 473 pertsonak eman dabe izena Mungian, herena Belarriprestak.

Baldintza bi egon dira parte hartu ahal izateko: a) 16 urtetik gorakoa izatea eta b) euskeraz ulertzea.

| | |
|---|---|
| Bizilagunak | 17.816 |
| Erdaldunak | 4.296 |
| Hamasei urtera artekoak | 3.420 (bakarren batek ez dau ulertuko) |
| | 10.100 |

Beraz, parte-hartzea %24,48koa izan da.

Eta %5,5 geratu dira txapa batu barik

**• ANDRAK/ GIZONAK:**

%61,7 andrazkoak eta %35,5 gizonezkoak

**• ADIN-TARTEKA:**

| | |
|---|---|
| 16-25 urte | %15 |
| 56-65 urte | %13,9 |
| 26-35 urte | %16,3 |
| 66-75 urte | %7,2 |
| 36-45 urte | %24,1 |
| 75etik gora | %2,3 |
| 46-55 urte | %21 |

Datu horreetatik aparte, ezinbestekoa da herrian sortu dan gogoa eta Talde Eragilearen dinamikea kontuan hartzea.

Un 24,48% de las y los mungiarras habéis tomado parte en el Euskaraldia mostrando vuestra implicación en impulsar y cuidar de nuestro mayor símbolo de personalidad, el euskera.

# Irakurzalez betetako herria

**155 bazkide daukaz Udal Liburutegiak**

Udal Liburutegian beharrean segitzen dogu herritarrei eskaintza hobea eta zabalagoa emoteko. Horretarako, azken urteetan zerbitzu-eskaintza handitu egin dogu, besteak beste, **eLiburutegia, mailegu digitala ahalbidetzen dauen plataforma** eta eduki digitalen irakurketa errazten dauena. Horrezaz ganera, ordutegia zabalagoa eta etenbakoa da.



### NEGUKO ORDUTEGIA BAGILAREN BUKAERARA ARTE EGONGO DA.

Umeek bere hainbat barrikuntzaz gozatzeko aukerea daukie Txiki Txokoan, izan bere hilero daukie ipuin kontalaria euskeraz eta ingelesez.

Umeek bere hainbat barrikuntzaz gozatzeko aukerea daukie **Txiki Txokoan**, izan bere hilero daukie ipuin kontalaria euskeraz eta ingelesez.

Horren ganera, abendutik **lau Irakurle Klub** ditugu martxan: euskerazkoa, gaztelaniazkoa, ingelesezkoa eta frantsesezkoa (azken horrek epe laburrean arrakasta handia lortu dau). **Hilean behin batzen dira**, ordubeteko saioetan, eta irakurritako liburuen, literaturaren eta hainbat gauza gehiagoren ganean berba egiten gozatzen dabe.

7155 Bazkide daukaz Mungiako Udal Liburutegiak**. Gure herriko bizilagunen %24 Udal liburutegiko bazkide dira** eta 2018an egindako 291 bazkide barrietatik 239 Mungiakoak izan dira.

Piramidearen arabera, gure liburutegian **irakurlerik gehien batzen dituan adin-tartea 10-15 urte bitarteko gazte**ek osotzen daben da, eurok dira-eta irakurleen ia %40. Hurrengoak, 5-10 urte bitarteko umeak dira, portzentajearen ia %37.

La pasión por la lectura de las y los mungiarras queda plasmada por las 7155 personas socias de la Biblioteca Municipal que cuenta, entre otros aspectos, con préstamo digital e-liburutegia, servicios para niñas y niños y clubs de lectura en euskera, castellano, inglés y francés.

# Valoración positiva del SAC

El Servicio de Atención Ciudadana (SAC) vuelve a tener una valoración muy positiva en las encuestas realizadas a las personas usuarias. Estas se realizaron el pasado enero de manera presencial a la salida del SAC.

Este espacio cuenta con nuevas tecnologías para **agilizar las tramitaciones y acercar los servicios a la ciudadanía.**

**Aspectos valorados del 1 al 5**
**(1 = nada satisfactorio**
**5= totalmente satisfactorio)**

- Acceso y ubicación a la oficina: 4,3
- Tiempo de espera: 4,1
- Consecución o resolución del trámite: 4,1
- Trato recibido por el personal: 4,6
- Atención en el idioma elegido: 4,7



# Euskeraz Udal barruko arlo guztietan



**Udalbatzak aho batez onartu dau Euskeraren Erabilera Plana (2018-2022)**

Euskeraren erabilera normalizatzeko bidean danok daukagu zer egin: etxean, ikastetxeetan, merkataritzan eta ostalaritzan, kirol taldeetan, lagunarteetan… eta, jakina, administrazinoan bere bai.

Udalbatzak, konpromiso horri eutsita, abenduaren 21ean onartu eban 2023ra arte indarrean egongo dan Erabilera Plana.

Zeintzuk dira plan horren helburuak?

Batetik, **zerbitzu hizkuntzan (hau da, herritarrakazko hartu-emonetan) euskeraren erabilera bermatzea.** Egia esan, helburu hori nahiko ondo beteten dan arren, hondino badago zer hobetu, eta detektatu diran hutsune batzuk ondo bete beharko doguz.

Bestetik, euskera lan hizkuntza "oso" bihurtutea, hau da**, udaletxe barruko beharrean bere arlo guztietan erabili ahal izatea.** Hortxe egingo da indar gehien, izan bere, beharginen eguneroko jardunean euskerak gero eta presentzia handiagoa daukan arren, batez bere ahozkoan, oraindik bide luzea falta da.

## ZER EGINGO DA HELBURU HORREEK LORTZEKO?

Lehenengo helburu hori lortzeko, Udalak **herritarrei eskaintzen deutsiezan zerbitzuetan euskeraren erabilera bermatuta dagoala egiaztatzeko** protokoloak (jardueteko moduak) ezarriko dira eta, beharrezkoa danean, zuzenketa neurriak aplikatuko dira.

Bigarrenari jagokonez, **langileei euskeraz behar egin ahal izateko baliabide egokiak eskaintzea** izango da lan-ildo nagusia: tresna informatikoetan euskeraren presentzia handitu egingo da eta, langileen prestakuntza hobetuta, euskeraz gehiago sortuko da.

Batez bere, bigarren hori (beharginen prestakuntza egokia) izango da datozen urteetarako erronkarik handiena, hortxe inbertituko dira ahalegin nagusiak eta plan honek ezarrita daukan aurrekontuaren zatirik handiena bere.

## ZELAN ETA NORK?

Udal osoari begira bai, baina, batez bere, sailka gauzatuko dan plana diseinatu da hau da, hirigintzan, gizarte ekintzan, idazkaritzan…; langileek eurek emondako eretxietan oinarrituta. Izan bere, ezarritako helburuak beteteko, ezinbestekoa da langileakaz adostea egin beharreko lana eta bidea, eta ez adostea bakarrik, eurek parte-hartzea bere bai, horren adibide dogu Prestakuntzarako Batzordea.

Honainoko ibilbidea luzea izan dan arren, plan honek orain arte sekula ibiliko bako bide batzuk eskaintzen deuskuz. Apustu berezia, benetan, Udalarentzat eta, batez bere, Udalak emoten dituan zerbitzuen oinarri diran beharginentzat.

Con el firme propósito de normalizar el uso del euskera en todos los ámbitos, en la sesión plenaria celebrada el 21 de diciembre de 2018 se aprobó el Plan del Uso del Euskera interno. El objetivo es asegurar el uso del euskera en los trámites realizados con la ciudadanía y en todos los campos de trabajo del Ayuntamiento.

# Lanean....euskeraz?

Mungiako enpresa-munduan erabilten da euskerea? Zenbat?

Galdera horreei erantzuteko eta "argazki" bat lortzeko asmoz abiatu zan **irailean enpresetako azterlana** (aurrekontu partehartzaileen bidez aukeratua). Holango proiektuetan esperientzia handia daukan Artez enpreseari adjudikatu jakon pasa dan udabarrian lan hori.

Azterlanaren oinarria galdetegi bat izan da, **herriko industrialdeetako enpresa guztiei pasau jakena**. Enpresetako batzuk e-mailez erantzun dabe, beste batzuk telefonoz, eta beste batzuei, barriz, bisitak egin jakez. Martian izango dogu eskuartean azterlana bera. Bertan, enpresetako erabilera datuez ganera, eurek daukiezan beharrizanak eta interesak bere agertuko dira.

Lan hori oinarritzat hartuta, Euskeraren Aholku Batzarraren laguntzagaz, **maiatzean jardunaldi bat antolatuko da enpresentzat, datuak eurei aurkezteko eta, batez bere, euren artean dagozan euskaldunak saretzeko.** Jardunaldia alkarlanerako bidearen abiapuntua izatea espero dogu.

Financiado con los presupuestos participativos, el pasado septiembre comenzó una investigación sobre el uso del euskera en las empresas de Mungia. Las empresas han rellenado un cuestionario y los resultados se darán a conocer en marzo. Además de los datos sobre el uso también se recogerán sus necesidades e intereses.

# Mugikorrean jolastuz euskal kultura ikasten

*Gurot!* **kultura unibertsala eta euskal kultura euskeraz eta online lantzeko jolasa** da, bakarka zein inoren kontra jokatzeko aukerea emoten dauena.

Geure Udalak eta inguruko beste udal batzuk (Erandio, Getxo, Leioa, Txorierriko mankomunidadea, Uribe Butroekoa eta Uribe Kostakoa) alkarlanean sortu dogun aplikazio hau sano **erraza eta dibertigarria** da edonorentzat. Hori bai, 12 urtetik 17ra bitarteko gazteek baino ez dabe eukiko bagilaren 21ean zozkatuko diran sariak irabazteko erea. Sariak honeek izango dira: iphone bat eta Hesiaren taldearen kontzertu batean backstage-ra sartzea.

Jokatu eizu! ea zenbat asmatzen dozuzan!




Varios Ayuntamientos nos hemos juntado para crear la aplicación Gurot! , un juego online en euskera para aprender sobre cultura universal y vasca de manera divertida. Las y los jóvenes de entre 12 y 17 años tienen la oportunidad de participar y ganar varios premios.

# Dos empresas mungiarras de ejemplo

Bizkaiko Foru Aldundiko DRIVE proiektuaren barruan, Mungiako *BAUSSA* eta *FLUYTEC* enpresak **campeonas ocultas** deritxon zerrendan, 24 pyme hartzen dituana: hain zuzen bere, euren ibilbide, posizio, esportazio eta jarduerari esker.




Argazkia: BAUSSA




Argazkia: FLUYTEC

## BAUSSA y FLUYTEC, campeonas ocultas

Las empresas *Baussa* y *Fluytec* de Mungia forman parte de una muestra de 24 pymes de Bizkaia que responden al perfil **de campeonas ocultas**. Esto significa que son exportadoras, con una sólida posición competitiva en nichos de mercado, focalizadas en el negocio B2B, centradas en la rama industrial de la economía, con una larga historia, familiares, poco visibles, pero claves para la estabilidad y el crecimiento económico del territorio.

**SON COMPAÑÍAS CUYA TRAYECTORIA MERECE SER ESTUDIADA, DESTACADA Y TOMADA COMO REFERENTE.**

Esta iniciativa se enmarca dentro del proyecto DRIVE que la Diputación Foral de Bizkaia ha puesto en marcha. El proyecto se centra en el estudio de pymes industriales vascas ya con una historia, a menudo un origen familiar, con un producto o tecnología estrella, y un alto nivel de exportación que les permite tener una posición relevante, un crecimiento sostenido y una rentabilidad superior a la media del sector.

# Praktikak herrian

Urtarrilean *Biltegiko Jardueren laguntzaile* ikastaroa bukatu eben gure eskualdeko 15 gaztek, zazpi emakumek eta zortzi gizonek, hain zuzen bere. Behin heziketa teorikoko 210 orduak gaindituta, profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko, praktika ez laboralak egin dabez.

Ikasle horreek praktiketan hartzeko interesaturik egon diran Mungiako enpresen kopuruak ikasleen kopurua gainditu dau. Hori dala eta, **guztiek izan dabe euren herrian praktika ez laboralak egiteko erea**, diru-kostuak gitxituta eta euren enplegagarritasuna hobetuta.

Las y los 15 jóvenes de nuestra comarca que han realizado el curso de *Actividades auxiliares de almacén* han realizado prácticas no laborales en su municipio de residencia, ahorrando en costes y mejorando su empleabilidad.

# Olalde Aretoak ikusleak bikoiztu egin ditu akabuko 3 urteotan

**2018 urtean 25.000 lagun joan ziran ekitaldietara**

Olalde Aretoko ikusleen kopurua bikoiztu egin da akabuko hiru urteetan. Erabilera anitzeko ekipamendu kulturalean egindako azterketa baten arabera, **2018 urtean 25.000 lagun inguru** joan ziren bertako ekitaldietara, 2015 urtean baino %95,52 gehiago. Horren ganera, **2018 urtean ekitaldi bakotxeko ikusleen batez bestekoa 285 lagunekoa** izan zan.

Herritarrek daukien zinema-eskaintza zabalagoa da eta estreinaldirik barrienak ikusi leikien, prezio ezin hobean.

Olalde Aretoko eskaintzari jagokonez, **urtean 20 ekintza inguru** egiten dira, aniztasuna bidelagun eta euskal artistek ekoitzitako lanak nagusi dirala. Artista batzuek **Olalde Aretoa aukeratu dabe euren obren plazaratzeko; kasurako**, Belako, Deabru Beltzak eta Ken Zazpi taldeek.

**HELBURUA ERA ASKOTAKO EKINTZAK BATZEN DITUAN AISIALDIRAKO KALIDADEZKO EGITARAU KULTURALA ESKAINTZEA DA, BAI BERTOKO HERRITARRENTZAT, BAI KANPOTIK DATOZANENTZAT.**

Zinemari jagokonez, zinema-zerbitzua hobetzeko eta barriztatzeko asmoz 2016an Torrebillela Kultur Etxetik Olalde Aretora egindako leku-aldaketak sano emaitza onak izan ditu. **2015 urtean, 7.000 ikusle** zenbatu ziran Torrebillela Kultur Etxean eta **2018 urtean, ostera, 13.000 ikuslek** erosi erosi Olalde Aretorako zine-sarrerak.

Herritarrek daukien zinema-eskaintza zabalagoa da eta estreinaldirik barrienak ikusi leikien, prezio ezin hobean.


Ken Zazpiren 'Phoenicoperus' diskoaren aurkezpena Olalde Aretoan.

Programazino aberatsari esker, ikusle-ratioak sano onak dira; asteburuetan batez bere familienak eta astelehenetan, barriz, helduenak.

Horren ganera, ume zein gazteei zuzendutako zinema-eskaintzan bere lan egiten gabilz; eurentzako film bereziak proiektatuta eta gazteei zinera kuadrillan joateko aukera emonda.

| Ikusleak | 2015 | 2018 | Gehikuntza |
|---|---|---|---|
| Musika, antzerkia eta abar | 5.786 | 12.000 | %100 |
| Zinea | **7.000** (Torrebillela Kultur Etxea) | 13.000 (Olalde Aretoa) | %100 |
| **Guztira** | **12.786** | **25.000** | **%100** |

**Olalde Aretoa ha duplicado el número del público asistente en los últimos tres años**

En 2018 unas 25.000 personas acudieron a los eventos programados en Olalde Aretoa, una media de 285 por evento. Esto convierte el espacio en un referente a nivel de Vizcaya.

Desde que el cine se cambió a Olalde Aretoa en 2016 este ha dado sus frutos. Se ha duplicado el número de espectadoras y espectadores, alcanzando las 13.000 personas. Son muchas las familias y el público adulto que hacen uso de este servicio.

# Udal Musika eta Dantza Eskolako egitaraua

Ikasturte honetan Udal Musika eta Dantza Eskolan hurrengo jarduerak egingo dira:

- Galdakaoko Ospitalean dialisi-zerbitzuagaz eta Onkologiako hainbat alkartegaz Gabonetako emonaldiak
- Mungiako San José Etxe-Alai erresidentzian emonaldiak kurtso osoan zehar.
- Herriko kultur eta jai ekintzetan parte-hartzea: Olentzero, Bereber Urte Barria, Basatoste, San Antontxu, San Pedro eta Santa Zezilia.
- Irakasle eta MAE-Mungialdeko Antzerkizaleen Elkarteagaz batera *Kontakto*-ko ikasleen kontzertu didaktikoa maiatzaren 14an.



Udal Dantza Eskolako ikasle batzuen emonaldia Olalde Aretoan.

- Udal Dantza Eskolako ekitaldiak martian (Olalde Aretoan) eta bagilean (Matxin plazan).
- Udal Musika eta Dantza Eskolako kurtso amaierako kontzertua *Bihotzetik belarrira* 2019 bagilaren 21ean. Aurton Europako musika egunagaz bat dator.

La programación de la Escuela Municipal de Música y Danza de este curso prevé, entre otros aspectos, actuaciones en Navidad en el Hospital de Galdakao y en la residencia San José Etxe-Alai, participación en los actos culturales y festivos del municipio, concierto didáctico del alumnado de Contacto, actuaciones de la Escuela Municipal de Danza en Olalde Aretoa y Matxin Plaza y concierto de fin de curso *Bihotzetik belarrira* 2019.

# Animatu biolontxelo topaketan parte hartzen!

Mungiako Musika Eskolak biolontxelo ikasleen lehenengo topaketa antolatuko dau martian. Bertan txeloaren erabilera desbardinak ezagutzeko aukera izango dabe ikasleek, besteak beste, inprobisazinoa eta partitura bereziak landuko dira irakasle berezien eskutik; talde handiak eta txikiak egingo dabez, eta pedalak erabiliko dira.

**TXELOA IKUSPUNTU MODERNOAGO BATETIK AZTERTZEKO AUKERA APARTA DA.**

Topaketa honek motibazino barriak bilatzeko, zentro ezbardinetako ikasleekin lan egiteko eta goi




mailako irakasleak izateko aukera emongo deutse ikasleei. Alkartze hau Euskal Herriko Musika Eskola guztiei (EHMEkoak) eta kontserbatorioei zuzenduta dago.

Bertan parte hartzeko ikasle bakotxak 15 euroko kuota ordainduko dau klase kolektiboak eta inprobisazino klaseak lantzeko.

Topaketa Olaldeko Areto Nagusian eta alboko geletan, Musika Eskolako ensaio gela nagusian, ikasgeletan eta Mugire Txokoan antolatuko.

La Escuela Municipal de Música ha organizado para este marzo un encuentro de violonchelos. Así, las y los estudiantes que tengan interés podrán asistir a esta actividad para analizar el instrumento desde una perspectiva más moderna y tendrán la oportunidad de aprender con estudiantes de otros centros y profesorado altamente cualificados.

# Euskal Liburu eta Disko Azoka

Kultur giroa sortzeko eta sustatzeko asmoz dator atzera Euskal Liburu eta Disko Azoka eta, ohitura dan lez, egingo dauen ibilbide osoaren lehenengo geralekua Mungia izango da.

Orduan, martiaren 1etik 10era Matxin plazan jarriko dira, 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:00etara zabalik, literatura munduko nobedadez beteriko 11 postu. Aurtengo



Euskal Herriko argitaletxe ezagunak izango ditugu Mungian.

erakusketa eta gaia *Euskal emakume* poetak izango da.

Martxoaren 6an *Emakumeak eleberrietan* izeneko hitzaldi-mahai ingurua egingo da arratsaldeko 19:30ean Mugire Txokoan. Bertan Karmele Jaio idazlea egongo da.

Del 1 al 10 de marzo la Feria del Libro y Disco Vasco se apoderará de Matxin Plaza con las últimas novedades del mundo de la literatura.

## El coleccionismo trae un desfile de SEAT 600



La feria está organizada por Bitxikiak Bildumazaleen Alkartea, con la colaboración del Ayuntamiento.

El próximo 27 y 28 de abril se celebrará la 17ª Feria del Coleccionismo que trae consigo una exhibición de aparatos de telegrafía, un encuentro de Casas de Muñecas, la 11° convocatoria de afición de LEGO y como novedad, la 1ª cita de la nueva asociación vasca de PLAYMOBIL.

Además de la zona de compra venta e intercambio, habrá más de una docena de exposiciones y se realizará una concentración y desfile de SEAT 600.

# Inauteriak alaitzen

Martiaren 2an Foruen Plazak disko festa eta Taldeen Mozorro Lehiaketa jaso ditu. Aurtengo gaia 60. hamarkada izan da. Gai bera erabili dabe ostalariek bere *Mungiako Ostalariak Inauterietan* Lehiaketan. Aurten 17 tabernak hartu dabe parte*: Aketxe, Aterpe, Eguzkilore Station, Erlantz, Ez Esan Inori, Gure Kabia, Ikusi, Izarra, Korrontzi, Landetxo, La Cabaña, Mume, Ramontxu,Torpedo Gorria, Txomin – El Rincón del Vermouth, Txutxubis, Urgoiti.*

Martiaren3an, *Basatoste eta Txitxiburduntzi Eguna* ospatu genduan; hau da, goizeko 09:30ean



Basatoste eta Txitxiburduntzia Andui Kultur Alkarteak antolatu dau, Udalaren laguntzagaz.

hasi eta 7 kilometroko ibilaldia egin ostean, Andra Marin egin genduan hamaiketakoa.



Oihan Vega DJ-ak Foruen Plaza animatu eban zapatuko disko-festagaz.

En la fiesta de Carnaval el público asistente disfrutó del Concurso de Disfraz de grupos, de la antigua tradición del *Basatoste y Txitxiburduntzi y del Concurso de Hostelería Carnavalera,* con la temática de los años 60.

# San Pedro Jaietako Batzorde barria!



Joan dan urtarrilean Jai-Batzorde barria osatu zan 2019. urteko San Pedro jaiak antolatzeko. Komisinoa, Udaleko zinegotzi eta teknikariez ganera, urtero aukeraturiko herriko alkarte desbardinen 9 ordezkarigaz eratu da.

Udaleko ordezkariok badakigu Jai-Batzorde barriak jai-egitarau biribila prestatuko dauena mungiar guztiontzat, jaietan ondo baino hobeto pasetako.

## Hona hemen aurtengo alkarteak:

Azken Zarata Rock Elkartea

Gorabide Elkartea

Danontzat Jubilatu eta Pentsinodunen Alkartea

Mungia Igeriketa Taldea eta Mungia Rugby Taldea

Amilotx Dantza Taldea eta J.M. Arregi Abesbatza

Mungiako Merkatari eta Ostalarien Alkartea

Mari Jata Kultur Elkartea







El pasado enero se constituyó la Jai Batzordea de las fiestas de San Pedro para este 2019. Esta la conforman las y los concejales y personal técnico del Ayuntamiento, además de la representación de 9 asociaciones de nuestro pueblo..

MUNGIA
UDALA

ARGITARATZAILEA:
MUNGIAKO UDALA: Trobika, 1 / 48100 Mungia <Bizkaia>
Tel. 94 674 12 16 / komunikazioa@mungia.eus / www.mungia.eus
ALE KOPURUA: 7.000
LEGE GORDAILUA: BI•2224/2012

Mungin geure ikurrek